

# EUSKAL HERRIKO MENDIZALE- TASUNAREN HASERAK (Zenbait oroitzapen Federazioaren urre - eztaietan)

## BARKAMENA

Guk hatak besterik barkatzen dugun guren barkamena omen da. Aitz Jainak zuri ere. Guri gure zorrak barkatuz agertzen omen du, baitapu. Jainkoak bere handitasana. Gizona ere ez da barkatzen denean bezain haundi inoiz.

Urte Santuan gaude. Elkarrekin adiskifetzeko urtean. Lehenago kontu zaharrak abaztea eskutzen du honak. Lehenago zorrak barkatzea. Eta jakina haserre-bideak denek.

Adiskidetu behar haundia dankagu euskaldunok. Elkarrekin eraman ta/bikoak bihurtu gara. Oso minberak gaude. "Atxolo" erin garetu, dirudi. Berehalaxe erosten dirikogu elkarri txartelak eta errikirik gabe elkar zapuzten dugu. Edonor bidaltzen dugu nolabai gure salteki.

Adiskidetzeko eta elkarteko ordna berandutzen ari zaigu euskaldunoi. Ez dezaguke gure buruak ondatu gabe, gerozako utzi. Errespeto gehiago, hie eta mugaz zabalezagoak behar ditugu.

Gaur, ordea, beste zerbaiz dugu gogoan. Legezinez, elizgizonak, aldiarik eta abarrek bein baino gehiagoz eskatu dute zerbaiz aipatu nahi genuke. Urte Santuan eta adiskidetzeko urtean gaudezen gero guk ere politikagatik eta zizarteko borrokapatik askatasuna mugatutik daukatenentzat barkamen osoa eskatu nahi genuke.

Horretarako 123 zenbakian "Cuadernos para el Diálogo"k esanda "oaz ballatu nahi genuke. Ez dugu gure kabuz ezer gehiago erosten horke eskariari. Honek zioen:

"Antzinako ohiitua dugu Estaduko Buruzagiek Barkamen eskubide hau erabilteko nahiabekina. Okerrak eta hutsegiteak zigortzeko eskubidearen ondoren hotek barkatzeko eskubidea zigortzeko dugu.

Bi eratakoa izan daiteke barkapena: zigortzen barkapena emanen duena baina, bestea, berriz, oker eta hutsegitea emanen duena. Aurrenekoari indultxo eta bigarrena amnistia deritze. Osoagoa da bigarrena, ez bait da zigorra bakarrik gutxitzen edo kentzen, baita zigor hori leparatu zien legez-haustearan okerra ere barkatzen die. Beraz, zigorraren sustrai diren legeen aldaketa ere sartzen da barkamen oso horretan.

Behin baino gehiagoz eskatu dugu orrialde hauetan politikak eta zizarteko arazoentatik irtzearen daukatenentzat askatasuna. Barkamen orokor baten nahi garbi aratzen zen 1972an Leones legezinezko eduki zuten batzarrean. Elitzeginez ere gogo bera erakutsi dute bein eta berriz. Herriak oso pozik ihasko luke honelako erabakia. (Irizki berdinokoa izan ziren, alde batekoak eta besteokak, gal honi buruz lehen alpatutiko legezaren batzarre horretan).

Grezian, Jordanian, Turkian (orain Portugalen) egin denak. Espainian ere egokia gertatuko litatekeela erabaki dugu.

Beharrezkoa iruditzen zaigu, ez zigorrak abaztea eta kentzea bakarrik, baita legez-haustearan okerrak barkatzea eta gizonaren terretan erortzen duten lege hotek aldatzea ere, orain eta gero, elkarren artean bakari hie gaitzen. Horretarako ez da aski bihote zahar zigorrak arintzea edo erabat kentzea. Berez oker ez diren egiteak okertu beharrezten dituzten legeak aldatu behar dira. Bestela bakoitzak, bere irizkiak zahaltzeko, kidekerian bilitzeko, elkarteko eta asmoak gertzeko duen eskubidea murrizten bait da.

Politikoki barkapen orokor bat ematea litateke berriaren bakoitzeko eta elkar-bizitz sendo eta itzazpentuzko baterako lehen urratsak.

Gu ere horretan gaude. On baundaki elkarriko hitzeki hantekako erabaki batek. Bala gerta dudala eskutzen dugu Jainkoari.


## EGUN EGUNGOA

KATALUNARO BERRIAK

«El Vendrell» duzu Katalunako herri handikoa bat, oiztaliki «Vendrell» oker dituz. Bartzako dendarak hatak «El Vendrell» ezarri dio bere dendarak itena eta alkateak nola bat ordain-arazi dio.

Lehiak zaharrezko sei diruak ditue, bainuak ez nahi sinetuz, bera herriari jeltzuzko izena aldatzeko gogoz bat zigortzen dene.

Daniel Ibarbotti



Aspalditik mendi-kiroletan ari garenentzat urte gogotsuak zaigu aurtenko hau. Hil honen 18an betetzen da mendizaleen erakunde nagusia, Federazioa. Elgetako plazan sortzearen 50garren urteburua. Hau dela eta, maiatz honen 19an izango dute mendizaleek, Elgetan bertan, anatasunezko bilera.

Garai hartan Federazioaren sortzaile izan ziren elkarre edo bazkunenetik, uste dut, gaur egun lau besterik ez direla: C.D. Bilbao, Bilbao Alpino Club, Donostiako C.D. Fortuna eta C.D. Eibarreko. Gainerakoak suntsitu ziren, baina beste asko sortu dira geroztik, eta gure egunotan kumetzat ofizialki kirolagintzan, deportean ari direnari, mendizaleen federazioak dituz baziakerik gehien.

Mendizaletasunak gauza asko ditu bere alde. Natuz garban ibiltzeak, haize osasuntsua hartzea, baxter zokoak eta gailurrak ezauguetuz gainera, batez ere, edozein adinetan praktikatu ahal izatearena. Gainera, sasoko eta ez baino sasoko daukenden zenbait ekintza berzi ere egin dezakete: ski, eskalada, speleologia eta abar. Zabalitasa hauek elkarri dute kirolagintza honen usuritasuna.

Baina, hastapenak kontuan hartuko baditugu, bestelako arazoak ere aurki gaitzake. Industriagintza handiak, hiririk handienak, kolektiboak gogaituz Naturaren bila iristeak bultzatu zuten gizona kirola hau hautatzeri.

Joan zen mendearen azkenaldean hasi ziren mendi ibiltariak kiroltze bezalako ekintzan, baina Bilboko Club Deportivoak jarri zuen, 1914an, lehen konkursa, kirola gisa urteen zenbait gailurretara igotzeko jarriaz. Era hau herri-horri zabaldu zen garai hartako zenbait kirol bazkuntzara, eta elkartez eta gizonez gehitza pentsatzen utien erakunde nagusiago bat sortzea, denen arteko herreman eta elkartasunera. Orduan sortu zuten Federacion Vasco-Navarra de Alpinismo.

Orduan, esan dugunez, baziren zenbait elkarre, eta haserako baterak hasiak ziren ibiltaritza soietik iruztas beste zenbait ekintza berziri helduar. Ezate baterako, Txolaino papertegiaren storri ziren zoruazurrak okarri zuten

ski egiteko ohiitua, eta 1906an sortu zen Ski Club Tolosano. Tolosarrak izan ziren geroago Candanchu, skiatzeko toki paregabea, aurkitu zutenak eta baita lehen ostatua toki hartan agian zutenak ere. Bilbo aldean ordea, eskaladak egiten hasiak ziren Federazioa sortu orduko. Era sorturtean bertan, Ordunako Pico del Fraile eta Menako Ahorcado haizorrota igoi zituzten. Gainera laster heldu ziren bizkaitar haiek Naranjo de Buldes-en gailurrera ere. Eta ez ziren urte asko igaro Alpes mendietako gailurrik alituenak iso arte Garai hartan, Sopena eta Espinosa izan ziren batez ere ekintza horretan gehien saiatu zirenak: azken hau Killmanjara ere bai, igozten.

Orduko, Donostian eta Eibarren ere hasiak ziren eskaladak egiten, baina garai hartan apenas ezauguten zen espezialitate honen teknika-rik. Gerrate ondoren hasi genitok. Eibar eta Bilbon batez ere, teknika aurreratu xamarrek sartu gaituzten. Mallafre-ren liburua agertu ondoren, batez ere hobetu genuzen teknika. Gaurko abantailak apuriaz daude edonongo mendi handi eta zailtara joan ahal izateko.

Speleologia bere, oso aspaldikoa zaigu gure herrian, mende honen lehen partetik datorikoa. Baina beti persona soilak beren gisara edo arkeologoak beren jakintzeran beharrez. 1946an «Aransadia Zientzia Elkarte» sortzeaz batera, —elkarte honen sorreran zer ikusirik aski izaten zuten Gipuzkoako mendizaleak—, bizkortu zen harpeak ikertzea, elkarre honen speleologi sailari esker.

Baina, Federazioa sortu zenerako, aldiakari baten premia aurkitu ziren gure mendizaleak eta 1926an sortu zuten «Pyrenaica» deitzen dena, eta zenbait gora-behera eta eraguzpenen ondoren oraindik ere argitaratzen dena. «Pyrenaica» aldiakariaren bitzen dira Euskal Herriko mendizaleen erakundeak eta lanak. Mendiak eta mendizaletasunak inguruzten dituzten gauzak eta kirol honen historia bera aldiakari baten aurkitu behar dira. Gainera, aldiakari horrek, edo aldiakari honi esker, mendizaletasunak kirolaren gogoko maila bat hartzen du, mendizaleek beren mendiz ibilki eta buseak adiarazteki bestelako zenbait kultur gaitara eramatean diu: zientzia naturalak, etnografia, toki-izenak, kartografiak eta abar bildu ditu. Beraz, ezta nolabait literatura «Pyrenaica» aldiakariak bere inguruan, edo bere orrialdean barrena jaso duena.

Goi-maila heldu batean arkitzen zaigu, gaur egun, Euskal Herriko mendizaletasuna, aspaldiko etengabezko ekintza: esker. Maila honen adierazgarri ditugu azken urte hauetan mundu guzian zehar egin diren espedizioak. Baina batez ere aurtan bertan Himalaya-ko Everest-era antolatuz, eguraldiak eta suete apur baten laguntza zuzutu ahal izango dutena, «Tximisteko» espedizio hau aurra eramatea ezta txarretakoa. Oñore hoberik ezin dakegu.

Eta, guztetxo nintzantetik mendizaletasun honen espezialitate guziak zerbaiz bete ditudalarik, urteen esperientziak erakutsi didana hainzaz hartarik, ineluzko kontsulurik ematekoan, xera esango nuke, aspalditik datorikigun konkursagintza hori mendizaletasunaren haseretan dauden neska-nutiko eta gaitzetentzat utzeko. Nagusiak hortan jarraitzea, haurkeria iduritzen zait, beren mendiak berak berez dituz beste gauza itsegini asko probetxu hobek atzeratzeko, bai kirolaren aldetik eta bai jakintzeren aldetik. Gizona jantziago egingo duen zer ikusirik eta zer ikusirik franko bada hor gaindi.

J. SAN MARTIN